


Interpretazioa: Ondo erabaki



Interpretazio zerbitzuak kontratatzeke gida

Gaian aditua izan gabe interpretazio zerbitzu bat kontratatzea erronka handia izan daiteke.

Gida honetan bildutako aholkuek lasaitasun osoz ondo aukeratzen lagunduko dizute.

Itzulpengintza edo interpretazioa: zer desberdintasun dago?

Itzultzaileak idatzi eta interpreteak hitz egiten du.

Dokumentu idatziekin ari bazara lanean, itzultzailea da behar duzuna.

Adibidez: zerbait muntatzeko jarraibideak Txinako bezeroentzat, Portugalen egingo den publizitate kanpaina edo bulego nagusitik frantsesez bidaltzen dizkizuten dokumentuak.

Atzerriko hizkuntza bat darabilen norbaitekin hitz egin nahi baduzu, interpretea behar duzu.

Adibidez: administrazio kontseiluko bilera batean, kontratu bat sinatzeko elkarrizketetan, edota prentsaurreko zein kongresuetan.

Zer egiten du zehazki interprete batek?

Interpreteak bi kulturen arteko zubi-lana egiten du. Hizkuntza desberdinetako hitzunek euren artean hitz egiteko beharra dutenean hartzen du parte. Jaso duen formazioari esker, hizkuntza batean adierazitakoa beste hizkuntza batean modu eraginkor eta zehatzean emateko gai da.

Aurrez-aurreko negoziazioetan, interprete profesionalaren lana balio erantsi bat da: solaskideari zure hitzen zentzua helarazten dio eta, aldi berean, hark esandakoaren ñabardura guztiak ulertarazten dizkizu. Horrela, zuk denbora izango duzu ideiak ordenatu eta garrantzitsuena den horri arreta ipintzeko.

Nazio Batuen Erakundeak interpreteak kabinetan ikusten ditugu lanean. Lantegietako bisitetan kanpotik etorritako enpresari eta merkataritza ordezkariekin ikusten ditugu, komunikazioa ahalbidetzen. Ospitaleetan gaixok behar duten tratamendua jaso dezaten bermatzen dute, darabilten hizkuntza edozein izanda ere. Epategietan betetzen duten funtzioa ezinbestekoa da epaiketa justuak eskaintzeko.

Interpreteek burdinazko nerbioak dituzte

Interpreteek mezu bat entzuten dute hizkuntza batean eta, ia aldi berean, informazio bera ematen dute beste batean.

Saiatu nahi?

Hartu mikrofono bat, piztu telebista eta saiatu kazetaria edo aktorea esaten ari dena aldi berean birformulatu. Ez zaitez atzean geratu. Eta bukatu esaldi guztiak!

Pentsa orain gauza bera egiten ari zarela, baina hizkuntza batetik bestera. Eta noski, ezin duzu hiztegiak erabili ezagutzen ez dituzun hitzak bilatzeko: ez duzu denborarik!

Jokoan egon daiteke salerosketa baterako negoziazioa ondo irtetea, hitzaldi tekniko bat behar bezala ulertzea edo azoka batean enpresa batek duen prestigioa mantentzea. Horrelako egoeretan ikusten da benetako interprete baten profesionaltasuna.

Zer interpretazio modalitate daude?

Aldibereko interpretazioa

Aldibereko interpretazioan, hizlariak eta interpreteak aldi berean hitz egiten dute, segundo gutxiko tartearekin.

Hala egiten da lan nazioarteko erakundeetan eta merkatu pribatuan: itzulpen arina behar duten nazioarteko konferentzia eta kongresuetan, azoketan eta bilera teknikoetan.

Modalitate horretan interpretea hizlariarengandik urrun egoten da, intsonorizatutako kabina batean, eta aretoa zuzenean edo telebista pantailen bitartez ikusten du. Hizlariak esandakoa entzungailuen bitartez jaso eta mikrofono batekin itzultzen du; entzuleek hargailuekin jasotzen dute itzulpena.

Kasu batzuetan, hala nola lantegietako bisita gidatuetan edo entzule gutxiko bileretan, interpretazio ekipo eramangarria erabil daiteke, *infoport* izenaz ere ezagutzen dena. Sistema horrekin ez da beharrezkoa kabinak instalatzea eta, beraz, ez dago intsonorizaziorik.

Interpreteak hizlariak esandakoa entzun eta aldi berean itzultzen du, ahopeka, mikrofono baten laguntzaz. Entzungailuen bitartez jasotzen da itzulpena.




Aldi berean interpretatzeko kontzentrazio handia behar da; horregatik egiten da lan bikoteka, 20 edo 30 minututik behin txandatzuz.

Esan osteko interpretazioa

Esan osteko interpretazioan, interpretea hizlarien ondoan jartzen da, eta esandakoaren edukia jasotzeko notak hartzen ditu. Hizlariak minutu batzuz hitz egin ondoren, interpreteak mezua beste hizkuntzan ematen du. Txanda bakoitzaren iraupena egokia izan behar da interpretearentzat, hizlariarentzat eta publikoarentzat.

Interpretazio mota egokia da prentsaurrekoetan, ikastaroetan, bisita gidatuetan eta goi-mailako bilera politikoetan erabiltzeko. Kasu batzuetan, aretoaren neurriaren arabera, mikrofonoak erabili behar dira.




Esan osteko interpretazioa erabiltzean, kontuan hartu behar da ekitaldiaren iraupena ia bikoiztu egin daitekeela, lehenengo hizlariak hitz egiten duelako eta ondoren interpreteak.

Loturazko interpretazioa

Modalitate hau hizkuntza desberdinak hitz egiten dituzten bi pertsonen (edo bi talde txikiren) arteko bileretan erabiltzen da normalean: komunikabideetarako elkarrizketetan, enpresa-bilera txikietan eta abar.

Kasu honetan, aldebiko interpretazio teknika erabiltzen da: interpretea hizlarien ondoan jarri eta bi norabideetan lan egiten du; hau da, hizlariak gaztelania eta alemana hitz egiten badute, interpreteak gaztelaniatik alemanera zein alemanetik gaztelaniara itzuli beharko du. Modalitate honetan ez da ekipo teknikorik behar.



Interpreteari lana erraztu eta elkarrizketa arinagoa gertatzeko, parte-hartzaileek hitz egiteko txandak errespetatzea komeni da, baita hitz egiten jarraitu aurretik interpreteak itzuli arte itxarotea ere.

Interpretazio judiziala

Gaitasun linguistiko eta profesionalak izateaz gain, interprete judizialak kasuan parte hartzen duten herrialdeetako ordenamendu juridikoa ezagutu behar du.

Kontuan izan interpreteak prozedurako dokumentu guztiak kontsultatzeko aukera izan behar duela, bere lana behar bezala betetzeko.

Espainiako epaitegietan bideokonferentzia bidez ere lan egin daiteke, hizkuntza jakin baterako interpreterik aurkitu ezean.

Europar Batasunean, derrigorrez bermatu behar da interprete edo itzultzaile baten laguntza prozedura penaletan.



Epaitegira joan eta prozeduran erabiltzen den hizkuntza ezagutzen ez baduzu, asko gal dezakezu, batzuetan dirua baino askoz gehiago.

Espainiako magistratu Pilar Lunak esana: "Hizkuntzarekin lotutako akats batek errugabe bat zigortzea eragin dezake. Demagun interpreteak 'laztandu' ordez 'zirri egin' ulertzen duela, edo 'ukabilkada' ordean 'sastakada', ala 'aizto' beharrean 'aihotz'. Benetan gertatutako hiru adibide baino ez dira."

Telefono bidezko interpretazioa

Teknologiaren aurrerapausoak direla eta, bitartekaritza mota hau gehiago erabiltzen da azken urteotan.

Abantaila da partaideak elkarrengandik oso urrun egon daitezkeela. Hala, ez dago garraio gasturik eta ez da denbora askorik behar aurretik prestatzeko. Sistema erabilgarria da larrialdietan, eta zerbitzu publikoetan erabiltzen da batzuetan (ospitaleetan, ikastetxeetan, polizia-etxeetan...).



Modalitate honek desabantaila asko ditu, batez ere sor daitezkeen arazo teknikoak. Interpretazio mota hau beste aukerarik ez dagoenean soilik erabiltzea komeni da.

Zeinu-hizkuntzako interpretazioa

Zeinu-hizkuntza pertsona gorren hizkuntza naturala da. Berez garatu da, haien ingurunearen ikusmen-esperientzia oinarri hartuta.

Begi-keinuak kanala erabiltzen da. Eskuak, besoak, enborra eta aurpegia dira artikulazio organoak, eta zeinua da hitza edo esanahidun unitaterik txikiena.

Zeinu-hizkuntza ez da unibertsala. Espainian bi zeinu-hizkuntza ofizial daude: espainiarra eta katalana, Kataluniako lurraldera mugatzen dena.

Zeinu-hizkuntza ezagutzeak ez zaitu interprete bihurtzen, berariazko prestakuntza ezinbestekoa da.

Zeinu-hizkuntzako interprete baten zerbitzuak kontratatzerakoan, kontuan izan bertaratutako guztiek ikusi behar dutela interpretea, eta ondo argizatutako tokian egon behar dela.

Elebiduna? Nire koinatua bezala! Londresen bizi izan zenez, ingelesez egiten du.



Kontuz! Prestakuntzarik gabeko “elebidunek” interprete lanak egitea oso arriskutsua izan daiteke.

Arazoi simple batengatik: askok elebidunak direla uste arren, oker daude; are gehiago, bi hizkuntza hitz egitea ez da nahikoa interprete ona izan eta mezu bat hizkuntza batetik bestera pasatzeko.

Testuinguruaren xehetasun linguistiko eta kulturalak ezagutu eta ñabardura guztiak helarazi behar dira, baita presiopean nerbioak kontrolatu ere.

Interprete profesionalak era berezian egiten du lan, eta berariazko trebetasunak ditu. Interpretazio teknikak ezagutzen ditu eta zure mezua transmititzen du zehaztasun, eraginkortasun eta lasaitasunez, eta gainera, solaskideek esaten duten guztia ulertarazten dizu.

Nola aurkitu interprete bat?

- Hasteko, identifikatu **zer hizkuntza** behar duzun. Txinera hitz egingo dela esatea ez da nahikoa: zer hitz egingo dute zure bezeroek, mandarina, kantondarra edo pekindarra? Trebatutako interprete bat erabiliko diren azentu eta dialektoei egokitzeko gai izango da, baina hitz egingo diren hizkuntzen inguruan zenbat eta informazio gehiago eman, hobe prestatu ahalko du zerbitzua.

Kontuan izan, gainera, hizlariak ama-hizkuntza hitz egiten ez badute, lana neketsuagoa izango dela.

- Zehaztu **non** egingo duen lan interpreteak. Interprete bila ari zara epaiketa, medikuntza-jardunaldi edo lantegiko bisita baterako? Hitz egin lehenbailehen interpretearekin: interpretazio mota egokiena aholkatu, zenbat interprete beharko dituzun azaldu eta dena ondo joango dela ziurtatuko du.



**Elkarte profesionalen interprete-
zerrendak kontsultatzea komeni
da (ikus 23. orrialdea).**

Ezustekoak saihesteko, dena ondo prestatu

Interpretearekin ondo komunikatzea garrantzitsua da. Adibidez, aukera ona izan daiteke pare bat egun lehenago bien artean bilera bat antolatzea, terminologiari edo ekitaldiaren antolaketari buruzko zalantzak argitzeko.

Eman interpreteari bilerarako beharko dituen dokumentuak alde aurretik: besteak beste, ekitaldiaren egitaraua, hitzaldiak, diapositibak, hizlariak aipatuko dituzten txosten edo dokumentuak eta parte-hartzaileen zerrenda, bakoitzaren karguarekin.



**Interpretea zenbat eta hobeto prestatu,
hobea izango da eskainiko duen lanaren
kalitatea. Ez itxaron azkenengo
momentura arte behar duen informazio guztia
bidaltzeko.**

Ez arduratu interpreteak jaso ahalko duen isilpeko informazioagatik. Esku onetan egongo da.

Interpretazioaren sektoreko elkarteek etika eta erantzukizun profesionalaren inguruko kodeak sortu dituzte.

Bertan zehazten da interprete profesionalaren oinarrizko ezaugarri direla konfidentzialtasuna, inpartzialtasuna, puntualtasuna eta diskrezioa.

Erabili teknologia egokiena (baina ondo dabilela konprobatu!)

Ezusteak saihesteko, ondo pentsatu zer baliabide tekniko behar dituzun eta probatu ekipoa aurretik. Interprete profesionalak lana erraztuko dizute: amateurrek ez bezala (nahiz eta gogo onez lagundu nahi dizun norbait izan), profesionalak badakite material teknikoa nola erabili.




Hala ere, kontuan izan materiala prestatuko duen zerbitzu teknikoa kontratatu edo ekipoen arduradunak izendatu beharko dituzula. Interpreteek arreta osoa behar dute komunikazioa ahalbidetzeko, eta ezin izango dute arazo teknikorik konpondu.

Sekulako dirutza ordaindu beharko dut!

Garestiagoa da bilera bat porrot hutsa izatea zure bezeroak zer nahi duen ulertzen ez duzulako, edo Indonesiaraino joan eta zure hornitzaileak ingelesez hitz bat bera ere egiten ez duela ikustea. Zer esanik ez larrialdi medikoen kasuan. Medikiak gaixoaren aurrekariak eta sintomak ulertzea ezinbestekoa izan daiteke haren bizia salbatzeko.

Gehienetan, interpreteak autonomoak izaten dira. Ordainsariak interpretazio zerbitzua bera ordaintzeko balio du, baina baita aurretik egindako prestaketa lana ere: jasotako dokumentuak irakurtzea, informazioa eta terminologia bilatzea eta glosario zehatz bat sortzea. Lan guzti hori azken prezioak biltzen du, eta lanegun oso baten edo biren baliokide da.

 **Interprete profesional batekin zerbitzua merkeago nola lortu jakingo duzu, modalitate eta antolaketa egokiena aukeratzen lagunduko dizulako: aditua da, galdetu berari.**

Prezioan eragina duten faktoreak

• **Hizkuntza konbinazioa, interprete kopurua eta modalitatea:**

Zure egoeraren arabera jakingo duzu zer hizkuntza behar dituzun, interprete bakarra edo talde bat behar duzun, eta aldiberekoa, esan ostekoa, loturazkoa edo telefono bidezko interpretazioa komeni zaizun. Eskari-eskaintza legeak zuzeneko eragina du prezioan: hizkuntza ezohikoa bada eta interprete talde bat behar baduzu, gehiago ordaindu beharko duzu.

• **Zerbitzuaren iraupena:**

Normalean lanaldi erdiko edo lanaldi osoko tarifak erabiltzen dira. Zerbitzua hasi aurretik, interpretearen oinarritzko tarifak eta aparteko lanorduen edo ezeztapenengatiko gainordainak ezagutu behar dituzu.

• Garraioa:

Garraioaren kostua eta leku batetik bestera emandako denbora ere fakturatzeko dira, iraupen edota distantzia jakin bat gainditzen bada. Zerbitzu luzeen kasuan, kontuan izan interpretearen gastu guztiak ordaindu beharko dituzula, otorduak eta hotela barne.

Lekuak ere eragina du prezioan: arrisku-plusa eska daiteke, adibidez, ezegonkortasun politikoagatik seguruak ez diren herrialdeetan edo espetxeetan. Halaber, enkargu jakin batzuetan aseguru berezi bat beharko da.



Adostu idatziz xehetasun guzti horiek interpretearekin zerbitzua hasi aurretik.

Interpretazio zerbitzu on bat errentagarria da

“Pentsa zenbat diru inbertitu duen zure enpresak hegaldietan, hoteletan, catering zerbitzuetan; eta zenbat denbora, lanpetuta dauden enpresaburuak bilera garrantzitsuetara bidaltzen.

Horiekin alderatuta, interprete profesional talde baten ordainsariak txikiak dira. Gainera, haiei esker ordezkari guztiak ulertuko dute bileran gertatzen dena, eta parte hartzeko aukera izango dute.” esan zuen Espainiako enpresa garrantzitsu bateko marketin buruak.

Nazioarteko funtzionario batek esana: “Bileraren helburua mezu bat helaraztea edo ideiak trukaztea baldin bada, interprete profesional baten zerbitzuak behar dituzu. Baina egiten dituzun bilerek inongo helbururik ez badute, aukera merkeagoren bat hauta dezakezu.”

Zeuk erabaki.

**Interpretazioa ez da
afizionatuen kontua.**

**Aukeratu zure interpretea
prestakuntza akademikoaren
eta esperientziaren arabera, eta
kontuan izan sektoreko elkarte
profesional bateko kide den edo ez.**

**INTERPRETE PROFESIONALAK
KONTRATATU!**



www.eizie.eus

Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile
eta Interpreteen Elkarte
Zemoria 25 E-20013, Donostia
Tel.: +34.943277111

Parte hartu duten elkarteak:



Associació
Profesional
de Traductors
i Intèrprets
de Catalunya

www.aptic.cat



Asociación Española de
Traductores, Correctores
e Intérpretes

www.asetrad.org



asociación gallega de profesionais
da tradución e da interpretación

www.agpti.org

Parte hartu duten beste elkarteak:



www.filse.org

Espaiic

www.espaiic.es

© copyright 2011

Euskarazko bertsioa: EIZIEko taldea

Jatorrizko testua ingelesez: Chris Durban © 2010

Diseinua: Mark Richardson



Interprete profesionalak kontratatuta arrakasta izateko aukera gehiago izango dituzu, mezua modu egokian iristen dela ziurtatzeko modu bakarra da eta. Gainera, interprete profesional batek segurtasuna emango dizu: aurrez egindako inbertsioari etekinik handiena aterako diozu eta arriskuak murriztuko dira, bai zuretzat baita zure lankide eta bezeroentzat ere.

Informazio gehiago jasotzeko eta profesional gaituen zerrenda, berriak eta sektoreari buruzko estekak eskuratzeko, jo www.eizie.eus webgunera.

EIZIE

euskar itzultzaile, zuzentzaile eta interpreteen elkarte